

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA

2016ko abuztuaren 8ko ALHAOn —88. zk.— argitaratutako Gasteizko enpresetan aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtuz enpleguan egonkortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiaren oinarriak aldatzea

Erabaki hau hartu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 2an egindako bilkuran, 2016ko abuztuaren 8ko ALHAOn —88. zk.— argitaratutako Gasteizko enpresetan aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtuz enpleguan egonkortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia arautzen duten oinarriak direla eta:

1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 1ean egindako bilkuran onetsi eta 2016ko abuztuaren 8ko ALHAOn —88. zk.— argitaratu ziren Gasteizko enpresetan aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtuz enpleguan egonkortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia arautzen duten oinarriak aldatzea, ondoren adierazten den moduan:

4 oinarrian: Diruz lagundu daitezkeen ekintzak.

Hirugarren paragrafoan, honela dio: «eskabideak aurkezteko epea bukatu arte egindakoak (2016ko urriaren 1a)»; honela behar du:

«eskabideak aurkezteko epea bukatu arte egindakoak (2016ko urriaren 15a)».

Bosgarren paragrafoan, honela dio: «Ez da diru-laguntzarik emango eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan aldeak ados jarrita lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonak kontratatzeko»; 'aldeak ados jarrita' kendu behar da, eta honela behar du:

«Ez da diru-laguntzarik emango eskabidearen zio den kontratua formalizatu aurreko hamabi hilabeteetan lan-harreman mugagabe bat bukatu duten pertsonak kontratatzeko».

5 oinarrian: Balioespen-irizpideak. Honela dio: «45 urtetik gorakoak»; honela behar du:

«45 eta 54 urte bitartekoak».

8 oinarrian: Enpresa onuradunen betebeharrak. Osorik kendu behar da hamargarren paragrafoa, «Diruz lagundutako» hasi eta «hurrengo kontratuei aplikatzea» bukatu.

12 oinarrian: Eskabideak aurkeztea.

Bosgarren paragrafoan, honela dio: «eta 2016ko urriaren 1ean bukatuko»; honela behar du:

«eta 2016ko urriaren 15ean bukatuko».

14 oinarrian: Prozedura.

Zazpigarren paragrafoan, honela dio: «2. 45 urtetik gorakoak»; honela behar du:

2. Aldaketa horiek ALHAOn eta Udalaren web-orrian argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 2an

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
HELENA RUIZ JIMÉNEZ DE VICUÑA